



DEKLINABIDEA

Mugagabea

Joan den ikasturtearen hasieran, labur-labur azaldu genuen noiz erabili behar zen mugagabea. Ikasturte honetan, zehatzago arituko gara gai horretaz.

Mugatu singularra edo plurala pertsonak edota gauzak **mugatuak** edo **ezagunak** direnean erabiltzen dira.

Mugagabea pertsona edota gauza **ezezaguna** edo **zehaztugabea** denean erabiltzen da.

Mugagabearen erabilera

- IZEN BEREZIAK

— Izen arruntak → mugatu singularrean edo pluralean (*basoan*, *basoetan*) eta mugagabea (*basotan*)

— Izen bereziak → **beti** mugagabea (*Agurainen*)

- IZENORDAINAK ETA ERAKUSLEAK

guk, gurekin, guretzat
honek, honekin, honentzat

- GALDEZTAILEAK: *zer, zein, zenbat*

Galdetzaile horiek beti mugagabea deklinatzen dira. Eta horiekin doazen hitzak ere mugagabea joango dira beti.

Zer egunø da gaur?

Zein etxeø da zurea?

Zenbat urtek egiten dute hamarkada?

- ZENBATZAILA ZEHAZTUAK: zenbakiak

Zenbatzaile zehaztuekin mugagabea eta mugatua erabil daitezke, baina esanahia aldatu egingo da, erabiltzen dugun formaren arabera.

Hiru ikasleø etorri dira. (mugg.) (edozein, ezezagunak, zehaztugabeak)

Hiru ikasleak etorri dira. (mug. plur.) (ezagunak, zehatzak)

- ZENBATZAILA ZEHAZTUGABEAK: *zenbait, hainbat, hainbeste, makina bat, hamaika, asko, gutxi...*

Makina bat astoø ikusi diat nik hegan.

Zenbait etxetan ez dago telebistarik.

Ikasle askok ariketak ondo egiten dituzte.

- DEKLINABIDEKO ZENBAIT KASU

— **Partitiboa** -rik eta **NORTZAT** -tzat deklinabide kasuak **beti** mugagabea.

Ez dut libururik erosi.

Tutoretzat hartu nau ikasle horrek.

- ZERTAZ edo ZEREZ kasua **gehienetan** mugagabea erabiltzen da.
Eskuz egin ditu marrazkiak, eta ez ordenagailuz.
Bizikletaz etortzen naiz ikastetxera, eta ez autobusez.

Zenbait esapide: uretan, esnetara, esnetan, elurretatik, sutan, eguzkitara, lotara...

Uretara murgil egin zuen.	Ez dago eguzkitan egoterik!
Gailetak esnetan busti ditut.	Garazi lotan dago.
Elurretan ibili gara.	Igandero joaten naiz mezatara.
Sutara bota dut papera	Eskuinetara dago zure gela.

1 Bete hutsuneak, eta adierazi mugagabea ala mugatua erabili duzun.

- 1 Esan al diozu Unai..... zer egin behar duen?
- 2 Irakasleak hiru ikasle..... saritu ditu.
- 3 Zuzendariak Jagoba..... izendatu du ikasleen ordezkari.
- 4 Pilota esku..... edo pala....., bietara atsegin dut.
- 5 Aitak goizero ogi..... bidaltzen nau.
- 6 Ez dut hori egiteko inongo asmo.....
- 7 Idazkaritzan nengoelako idazkari..... hartu naute.
- 8 Arrainak ur..... bizi dira.
- 9 Hi..... ipar-polara joango nindukek.
- 10 Zenbat ikasle..... joan dira igerilekura?
- 11 Aurrena iritsi naiz helmugara, baina izerdi.....
- 12 Hainbat toki..... joan ginen udan.
- 13 Ardo..... gutxi edanagatik mozkortu egin daiteke.
- 14 Gure izeba gaur osabarekin haserretu eta su..... jarri da.
- 15 Azukrea ur..... sartuz gero, urtu egiten da.

Ordenagailuz egin
ditu marrazkiak.

Ordenagailuarekin egin
ditu marrazkiak.

2 Zuzendu perpausetan dauden akatsak.

- 1 Zer irakaslearengana joan behar dut hori esatera?
- 2 Gure herriko zenbait kaleetan elbarrientzat espaloiak konpontzen ari dira.
- 3 Txitxirioak beratzeko, uran jarri behar dira.
- 4 Jolasean ibili eta gero, ordularia elurretan galdu zait.
- 5 Mikeleri ezin zaio horrelakorik esan, beldurtu egiten da.
- 6 Zer umeak bete ditu gaur urteak?
- 7 Zer etxean bizi dira zure aitona-amonak?
- 8 Zenbat urteetan geratu zara oporretan inora joan gabe?
- 9 Suetan jarri dugu eltzea.
- 10 Zenbait unean ez dut jakiten zer esan.

